

## Abenduaren 2an **ABENDUALDIKO I. IGANDEA (C)**

### **Agurra**

Gu salbatzera datorren Jauna izan bedi zuekin.

### **Sarrerako Oharpena**

Elizak liturgi urte berria hasten du. Kristorengandik datorkigun salbamen misterioa era desberdinetan ospatuko dugu urte honetan. Abendualdia-Eguberrialdia-Epifania dugu lehen aldia, Jainkoaren Semearen jaiotza eta agerkundearen oroigarria egingo dugunekoa: Jainkoaren Semea gizon eginda Espirituaren egitez Maria Birjinaren errailetan.

Abendualdiko lau aste hauetan, itxaropen pozgarriz bizitzeko aldia dugu: Kristo Salbatzaileak gure haragia hartzen du eta etorkizunari begira jartzen gaitu guztiok.

**Abendualdiko argia piztea** (*Kantua, liburuxka honetan, 5-6 orrialdeetan*)

**Damu-otoitza** (*Kandelen ezaugarria egiten bada, utzi Damu-otoitza*)

Bizia hurbiltzen ari zaigunean, ezin, bada, zoritxarreko egin gaituenari leku egin. Eska diezaiogun barkamena Jaunari.

- Jesus Jauna, mundura gu salbatzera etorria: erruki, Jauna.
- Jesus Jauna, Espiritu Santuaren graziaz / etengabe geurekin zaituguna: Kristo, erruki.
- Jesus Jauna, gure egintzak epaitzera / egun batean etorrriko zarena: erruki, Jauna.

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizitzara.

## Otoitza

**Jainko ahalguztiduna,  
emaiezu zure fededunei  
beren egintza onekin Kristoren bidera ateratzeko gogoia,  
egunen batez, Haren eskuinaldean jarririk,  
zeruko erreinua iritsi dezaten.  
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,  
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean  
Jainko eta errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.**

## Hitzaren liturgiari oharpena

Animoso bizitzeko deia egiten digute irakurgaiek: burua altxata, bidean aurrera, duintasun gogoz eta solaridaritza egarriz. Hori da Jesusen jarraitzaileoi eskatzen zaigun jarrera: edonolako ustelkeria gure bizitzatik kanpo utzi eta Jaunari atsegin zaion bizimodua geure egin behar dugu.

## Lehenengo irakurgaia (*Jr* 33, 14-16)

Jeremias Profetaren liburutik

«Begira, badatoz egunak —dio Jaunak—, eta egun horietan beteko dut, Nik Israel etxeari eta Juda etxeari emandako hitza. Egun haietan eta ordu hartan, legezko muskil bat sortaraziko diot Davidi, esta eskubidea eta zuzenbidea ezarriko ditu lurrean. Egun haietan Juda salbatuko da, eta Jerusalem lasai biziko dira. Hona, herriari emango zaion izena: "Jauna-gure-zuzentasun"».

## Erantzun-salmoa (*Sal* 24, 4-5. 8-9. 10 eta 14)

Ar - gi - tu gu - ri zu - zen - ta - su - na. E -  
 man be - ti - ko ba - ke - a, Jau - na.

Erakuts niri, Jauna, zure bideak, ‘  
 adierazi zure bideskak.  
 Eraman nazazu zure egia bidetik, eta argitu,  
 Zu baitzara nire Jainko salbatzaile,  
 Zu zaitut egun osoan nire itxaropide. R/.

On eta zuzen da Jauna,  
 horregatik erakusten die hobendunei bidea.  
 Apalak zuzenbidez daramatza,  
 erakusten die bere bidea apalei. R/.

Jaunaren bidexka guztiak grazia eta leialtasuna,  
 Haren ituna eta aginduak gordetzen dituztenentzat.  
 Etxeko ditu Jaunak begirune diotenak,  
 erakusten die bere ituna. R/.

### Bigarren irakurgaia (1 Ts 3, 12–4, 2)

San Paulo Apostoluak Tesalonikarrei

Senideok: Jaunak gehitu eta ugari dezala, zuek elkarrentzat eta denontzat duzuen maitasuna, ugaria den bezala guk zuentzat dugun maitasuna. Horrela sendo ditzala Berak zuen bihotzak; Jesus gure Jauna bere santuekin etortzen denean, santu eta esankizunik gabe aurkez zaitetzen, gure Aita Jaungoikoaren aurrean.

Gainerakoan, senideok, eskabide hau egiten dizuet Jesusengan: ikasi zenuten niregandik, nola bizi Jaungoikoari atsegin emateko. Egin, beraz, hala eta jarrai horretan aurrera. Badakizue, guk Jesus Jaunaren izenean eman genizkizuen erakutsiak.

### Aleluia (*Sal* 84, 5)



Jauna zure onginahia erakuts jezaguzu,  
zure salbamena emaguzu. R/.

### Ebanjelioa (*Lk* 21, 25-28. 34-36)

#### Homiliarako argibideak

##### *Hurbil zuen askatasuna*

Urte liturgikoa hasten dugu kristauok; denboran kokatzeko gure modu berezia markatzen duena, **Jesusen misterioak eguneratuta**. Itxaropenez hasiko dugu, gure begiak Jainkoaren promesetan jarrita. Badakigu, munduan ez dela zailtasunik falta, baina badakigu, halaber, bere herria uzten ez duen Jainko errukitsuaren hurbiltasuna bizi dezakegula. Errukiaren Jubileuak etengabe gogoraraziko digu.

Gizaki guztiekin partekatzen dugu egutegi zibila, baina espiritu bereziarekin bizi dugu denboraren joana. Askorentzat, lanegunen - nekezak, askotan- eta asteburuko atsedenen jarraipena besterik ez da urtea, oporren irrikan. Gauza gehiago erosi eta diru gehiago xahutu besterik ez dute nahi. Fededunok, baina, gu salbatzera

datoren, salbatu gaituen, **Jainkoaren berritze betierekoa** bizi dugu, urtean zehar. Urte liturgikoaren hasieran, amaiera eguneratzen dugu; ez urtearena bakarrik, baita historiarena ere, Kristo Jesusen gertakariaren azken eta behin betiko garaiak bizi baititugu.

Munduaren azkena gogora ekartzearen helburua ez da guri beldurra sartzea, une honen dentsitateaz eta garrantziaz jabe gaitezen baizik. Eternitatez beteta dago denbora, behin betiko etorri baita Jainkoaren Erregetza (Lk 21,25-36). Horixe zen Jainkoak profeten bitartez iragarritako promesa handia, Israelen itxaropena bizirik mantendu zuena politikoki porrot egin zuten abentura historiko guztien erdian. Lurra galdu zuten, monarkia galdu zuten, baina etorkizunean justizia eta zuzenbidea ekarriko zituen **Mesias baten esperantza** jaio zen (Jr 33,14-16).

Israelek ikasi zuen etorkizuna ez duela gizakiak sortzen, baizik eta Jainkoak ematen digula. Jainkoa **Etorkizunaren Jainkoa** da beti, bere herriaren ondoan egongo dena beti, horren esperientziak, onak zein txarrak, partekatzen. Batzuetan, etorkizunik ez dagoela pentsa dezake batek, blokeatuta dagoela guztia, baina Jainkoa gai da itsasoan bideak zabaltzeko eta egoera desesperatu orotan konponbidea aurkitzeko.

Kristauok badakigu Nazaretoko Jesusengan bete dela promesa. Harekin, gorenera iritsi da giza bizitza. Jainkoa behin betiko komunikatu da gurekin Harengan, eta horren ondoren, ez dago Jainkoaren eta gizakiaren arteko komunikazioa, Jesusengan gauzatutakoa, gaindituko duen gertakaririk, ezta handienetan handiena izanda ere. Horrek ez du esan nahi historiak garrantzia galdu duenik, Jesusen ondoren. Ezta gutxiago ere. Jesusengan, erabat bete da Jainkoaren plana. Gugan, betetzeko dago, oraindik. Horren **itxaropenean** bizi gara, hortaz. Kristorengan emandako salbazio eta liberazio eskaintza hori gure egiteko dugu gure denbora.

Behin betikoaren ordenari dagokio maitasuna, jada. Horregatik, elkarrenganako maitasuna aldarrikatzen du San Paulok, beste ezeren aurretik, batek bere bizitzan Erregetza onartu izanaren seinale argi eta garbia baita (1 Ts 3,12-4,2). Maitasun horrek emango digu Jesusen aurrean aurkezteko konfiantza, Hura gure bila erortzen denean, dela gure bizitzaren amaieran, dela garaien amaieran. **Maitasunean** datza, hain zuzen ere, apostoluak eskatzen digun santutasuna. Kontua ez da aparteko gauzak egitea, ezta gauza bitxiak ere, baizik eta bizitza eta horren eskakizunak anaia-arreben arteko maitasunean bizitzea. Une pribilegiatua da Eukaristia gure itxaropena berritzeko eta “Zatoz, Jesus jauna” esaten jarraitzeko.

### Jainkoaren herriaren otoitza

Senideok, egiogun otoitz Jaunari, eta eska diezaigun uste osoz salbamena:

*Erantzuna: Zatoz, Jauna, gu salbatzera!*



- Kristau herriak, erne bizirik, gertu duen salbamena pozik onar dezan. Egigun otoitz. R/.
- Munduan bakea nagusitu dadin eta izadiaren aberastasunak gizaki guztientzat aurrerabide eta ongizate bilakatu daitezten. Egigun otoitz. R/.
- Gaixotasuna nahiz barrengo sufrimendua nozitzen dutenek aurki dezatela gugan Jaunak bere etorrerarekin guztiontzat dakarren bakea. Egigun otoitz. R/.

—Hemen gauden guztiok arretaz bizi gaitezela beti, ezerk ez gaitzan urrundu Jaunaren zain egotetik. Egigun otoitz. R/.

Jaungoiko Aita ahalguztidun eta betierekoa, gizaldietan zehar leial dirauzu Zure agintzarietan; entzun Zeure herriaren otoitzak eta zabal itzazu itxaropenera Zure fededunen bihotzak, Jesus, gure Salbatzailea bere santuekin etortzean, tinko iraun dezagun bere aurrean. Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.

**Prefazioa: Abendualdiko 3.** (*Liburuxka honetan, 7. or.*)

### **Jaunartze-ondorengo otoitza**

**On egin diezagula, Jauna,  
orain ospatu dugun sakramentuak;  
beronen bidez irakasten diguzu,  
mundu honetako gauza iheskorren artean gabiltzanoi,  
iraunkorrei jarraitzen eta zerukoak maitatzen.  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.**

### **Bukaerako oharpena**

Zuzena eta zuzengabekeria, egiazkoa eta faltsua... bereizten duen heinean Jaunari bidea prestatzen dio gizakiak. Egiteko hori eguneroko bizitzan jokatzeko dugu: Eukaristiak bidaltzen gaitu lanera itxaropenez eta gogotsu.

### **Bedeinkapen Nagusia**

**Jauna zuekin.** R/. Eta zure espirituarekin.

**Makur zaitezte, Jaunaren bedeinkapena hartzeko.**

(*Eskuak herriaren gain zabalik bedeinkapena esango du:*)

**Jesu Kristo etorri dela sinesten duzue  
eta berriro aintzaz etorriko dela itxaroten:  
Jainko ahalguztidun errukitsuak,  
Haren etorreraren argiaz,  
santu egin zaitzatela eta bere bedeinkapenez bete. R/. Amen.**

**Bizitza honetan gorde zaitzatela Jainkoak  
fedean sendo, itxaropenean alai  
eta maitasunean eginkor. R/. Amen.**

**Orain gure Salbatzaile gizon eginaren etorreraz  
pozten zaretenok  
gero, berriro aintzaz etorriko denean,  
betiereko biziaren saria iritsi diezazuela. R/. Amen.**

**Bedeinka zaitzatela Jainko ahalguztidunak:  
Aitak, eta Semeak, + eta Espiritu Santuak. R/. Amen.**